Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

6359

AGINDUA, 2009ko azaroaren 10ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena; honen bidez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Hiri-jabetzako Ganberetan, sailaren ordezkariak kendu eta izendatzen dira.

Abuztuaren 5eko 8/1994 Errege Lege Dekretuaren bidez, Hiri-jabetzako Ganbera Ofizialek eta beren Kontseilu Gorenak eskubide publikoko korporazio izateari utzi zioten, eta beren araubideari eta ondasunen erabilerari buruzko arau jakin batzuk eman ziren.

Hiri-jabetzako Ganbera Ofizialen langileen eta ondarearen araubideari eta destinoari buruzko urtarrilaren 31ko 15/2006 Dekretuaren bidez, Ganbera Ofizialetako ondarea likidatzeko eta langileak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioan integratzeko beharrezkoak diren jarduerak finkatu ziren.

Dekretu horren arabera, halaber, ganbera ofizialen gobernu-organoak deseginda geratu ziren eta, likidazio-prozesuak iraun bitartean, haiei esleitutako eginkizunak desagertutako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako ordezkari batek hartu zituen bere gain.

Horrela bada, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak, 2006ko otsailaren 22an emandako Aginduaren bitartez izendatu zituen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Bizkaiko eta Gipuzkoako Hiri-jabetzaren Ganbera Ofizialetako ordezkariak, eta 2008ko urtarrilaren 22ko Aginduaren bitartez aipatu sailburuak Arabako Hiri-jabetzaren Ganbera Ofizialeko ordezkaria izendatu zuen.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu, aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko den Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren ondorioz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila desagertu egin zen eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila sortu zen.

Horregatik guztiagatik, Hiri-jabetzako Ganbera Ofizialetako langileen eta ondasunen araubideari eta destinoari buruzko urtarrilaren 31ko 15/2006 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakori jarraituz,

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

6359

ORDEN de 10 de noviembre de 2009, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, por la que se procede al cese y designación de representantes delegados del Departamento en las cámaras de la propiedad urbana de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

Mediante Real Decreto-Ley 8/1994, de 5 de agosto, se procedió a la supresión de las Cámaras Oficiales de la Propiedad Urbana y su Consejo Superior como corporaciones de derecho público, dictándose determinadas normas en relación con su régimen y destino de su patrimonio.

Mediante Decreto 15/2006, de 31 de enero, sobre régimen y destino del personal y patrimonio de las Cámaras Oficiales de la Propiedad Urbana, se regularon las actuaciones necesarias para la liquidación del patrimonio e integración del personal de las cámaras en la Administración de la Comunidad Autónoma.

Asimismo el citado Decreto preveía la disolución de los órganos de gobierno de las cámaras, y la asunción de sus funciones, durante la realización del proceso de liquidación, por un representante delegado del extinto Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

A tal efecto, mediante Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales de fecha 22 de febrero de 2006, se acordó designar los representantes delegados del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales en las Cámaras Oficiales de la propiedad Urbana de Bizkaia y Gipuzkoa y en virtud de Orden del citado Consejero de 22 de enero de 2008 se designó al representante de la Cámara Oficial de la propiedad Urbana de Álava.

Como consecuencia del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, desaparece el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, y se crea el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

Por todo ello, de conformidad con lo previsto en la disposición adicional segunda del mencionado Decreto 15/2006, de 31 de enero, sobre régimen y destino del personal y patrimonio de las Cámaras Oficiales de la Propiedad Urbana,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Jorge Berezo Diez jauna Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Arabako Hiri-jabetzako Ganbera Ofizialeko ordezkari kargutik kentzea.

Bigarrena.– Jose María Gonzalo Casal jauna Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Bizkaiko Hiri-jabetzako Ganbera Ofizialeko ordezkari kargutik kentzea.

Hirugarrena.– Ricardo Ortega Gonzalez jauna Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gipuzkoako Hiri-jabetzako Ganbera Ofizialeko ordezkari kargutik kentzea.

Laugarrena.– Jose Obdulio de la Fuente Martín jauna izendatzea Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Arabako Hiri-jabetzako Ganbera Ofizialeko ordezkari.

Bosgarrena.– Ricardo Crespo Jimenez jauna izendatzea Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Bizkaiko Hiri-jabetzako Ganbera Ofizialeko ordezkari.

Seigarrena.– Pablo Peñacoba Alamo jauna izendatzea Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Gipuzkoako Hiri-jabetzako Ganbera Ofizialeko ordezkari.

Zazpigarrena.– Dagoeneko indargabeturik dagoen 312/1988 Dekretuak ganberetako gobernu-organoei ematen zizkien eginkizunak izango dituzte izendatutako ordezkariek.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 10a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

RESUELVO:

Primero.– Cesar a D. Jorge Berezo Diez como representante delegado del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales en la Cámara Oficial de la Propiedad Urbana de Álava.

Segundo.– Cesar a D. Jose María Gonzalo Casal como representante delegado del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales en la Cámara Oficial de la Propiedad Urbana de Bizkaia.

Tercero.– Cesar a D. Ricardo Ortega Gonzalez como representante delegado del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales en la Cámara Oficial de la Propiedad Urbana de Gipuzkoa.

Cuarto.– Designar a D. Jose Obdulio de la Fuente Martín como representante delegado del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes en la Cámara Oficial de la Propiedad Urbana de Álava.

Quinto.– Designar a D. Ricardo Crespo Jimenez como representante delegado del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes en la Cámara Oficial de la Propiedad Urbana de Bizkaia.

Sexto.– Designar a D. Pablo Peñacoba Alamo como representante delegado del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes en la Cámara Oficial de la Propiedad Urbana de Gipuzkoa.

Séptimo.– Se atribuyen a los representantes delegados designados todas las funciones atribuidas a los órganos de gobierno de las cámaras por el derogado Decreto 312/1988.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de noviembre de 2009.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.